

ZERGATIK ENPRESEK PARTE HARTU ENERGIA-KOMUNITATEAN?

Jarraian datorren dekalogoak jasotzen ditu hamar arrazoi zeinagatik enpresa batek bere udalerrian sortu den energia-komunitateko kide izan beharko lukeen.

1. Krisi klimatikoaren aurkako borrokan lagunduko duelako.
 - CO2 isuriak murrizten lagunduko duelako.
 - Erregai fosilen kontsumoa murrizten lagunduko duelako.
2. Energia-komunitateak, trantsizio energetikoaren baitan, krisi klimatikoari aurre egiteko aukera ematen duelako.
 - Sorkuntza berriztagarria, mugikortasun jasangarria edo energia kontsumo murrizketa landu ditzakeelako
3. Aurrezpen ekonomiko eta fiskalak ekar dakizkielako.
 - Ziurgabetasun egoerak gutxitzen dira, autokontsumitutako energia merkatutik kanpo gelditzen delako.
4. Tokiko energia berriztagarria sortzen delako.
5. Lege betebeharrei erantzuna emateko aukera direlako.
 - 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
 - 1/2024 LEGEA, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
6. Enpresaren erantzukizun jasangarrian ekarpena egiteko aukera ematen duelako.
 - Herri mailan
 - Abantaila konpetitiboa izan daitekeelako bezeroen aurrean.
7. Kudeaketa energetiko arduratsuagoa egiten laguntzen duelako.
 - Egoera energetikoaren ezagutzaren bitartez kudeaketa eta efizientzia hobea lortzeko aukera delako.
8. Tokiko garapen komunitarioaren bitartez herriko egiturak sendotu eta erresilientzia hobetzen dituelako.
 - Herriko proiektu parte hartzaile bateko kide izateko.
9. Eskualdeko eta herriko ekonomian eragina duelako.
 - Aktibitate ekonomikoa sortzen duelako eta enpleguak sortu ditzakeelako (instaladoreak, gremioak...)
10. Beste proiektu eraldatzaileetan parte hartzeko aukera izango delako.
 - Mugikortasun jasangarria, kontsumo murrizketa aholkularitzak...